

Ez dakit Koldo Zuazoren *Euskalkien jatorriaz eta bilakaeraz* (BERRIA) saiakera laburra interesgarria ez ezik zirraragarria ere ez ote den niretzat. Badakit haren irakurketak sorrarazten dizkidan hausnarketak, gaian aditua ez naizen aldetik, ez dutela espezialistengan sorraraziko dituenen zorrotasun eta sakontasunik. Hala ere, gure historiaz erakusten duena ikusita, haren datuen interpretazioaren bitartez, lerro artean irakurriz eta egiten dituen inferentziak eta azaltzen dituen zirkunstantzien arabera, nire ustez Zuazoren testuak gure herriari buruzko beste ikerketa ildo batzuk (soziolinguistika, historia, antropologia eta abarri dagozkionak) berresten eta sendotzen ditu, eta interesatuki ilunduta gelditu diren arloak eta garaiak argitzen.

Hitz bitan esateko, euskalkien jatorria antzinako euskal tribuen (barduloak, autrigoiak, baskoiak...) arabera edo elizbarrutien arabera azaltzen dutenen tesi tradizionalentzat ez bezala, Zuazorentzat dialektoen sorrera askoz berriagoa da, Erdi Arokoa, eta baliteke euskal probintziak eratzearekin bat etortzea. Izan ere, euskararen egituraren oinarritzko desberdintasunak bat datoz ezarritako muga politikoekin: «Badago bat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskara Iparraldekoetik eta Nafarroakoetik bereizten duena, eta beste bat Iparraldeko euskara eta Hegoaldekoa bereizten dituen. Beharbada, Nafarroako Erreinuaren zatikatzea dago bi gertakari horien oinarrian...».

Zuazoren saiakeraren bigarren sorpresa, euskalkien sorrera-guneak aztertuta, hauxe da: berrikuntzaren gune nagusietako bat Iruñea izanik, jakina, historiako euskal hiri nagusia alegia, bigarren gune handia Gasteiz dela, eragin handiko beste euskal hiri dinamikoa. Hain zuzen ere, Iruñean daukate zentralitatea lurraldez zabalduenak dauden euskalkiek (gipuzkerak, nafarrerak, lapurterak...), baina euskalkien artean indartsuenetako bat den gaurko bizkaierak Arabako hiriburuan dauka jatorria: «Gasteizen eragina, bere probintziara ez ezik, Bizkaira, Debako bailarara, Errioxara eta, neurri txikiagoan, Gipuzkoako Urolako eskualdeetara eta Goierriara zabaltzen zela dirudi...». Eskema horrek esplikatzen du euskalkien kokalekua, elkarren arteko eragina, zona batzuetan duten dinamismoa eta beste zona batzuetako inertzia, eta abar.

Hasieran esan dudanez, hizkuntzaren ikuspegi hori erakargarria da, erreala, dinamikoa. Euskalkiak errealitate estatikoak, antzinakoak, indar (ilun), tribu zahar edo antzekoei dagozkienak bailiran interpretatu beharrean, hemen hurbileko ekintza politikoa eta soziala ikusten dugu. Ulegarria. Garbia. Populazioak bere eguneroko bizitzan sortutakoa.

Berger-ek eta Luckman-ek esango luketenez, errealitatearen sorkuntza sozialak, kasu honetan gizakiok hain berezkoa eta funtsezkoa dugun hizkuntzak (berak ere sortzen gaitu gu) gu eratzen gaitu eta guk mundua eraldatzeko tresnatzat erabiltzen dugu. Gainera, baserrietako eta haitzuloetako hizkuntzaz mintzatzen den herriaren bertsio sabinianoarekin kontrajarrita, euskara taxutu duten guneak hiriak, politika (eraso eta zapalketarena, bide batez esanda) eta jarduera ekonomikoa eta soziala izan dira.

Hor sumatzen dugu prozesu politikoen garrantzia. Euskalkien erradiografian garbi ikusten dira

historiaren ibilbideak, ekonomiaren nondik norakoak, mugen hesiak, okupazioa eta gerrateak nozitzen dituen lurraldearen antolamendua. Halaber, gizarte sarea berrerratu egiten dela (biziraupena, birsortu egiten den bizitza) eraginik handiena duten gune aktiboenetan. Iruñean (Barcina alkatearekin) edo Gasteizen (non inoiz ez den euskaraz egin, herri honen etsai ugarien esanetan) euskarak duen egoera tristea ikusita, gezurra dirudi bi hiri horiek izatea euskalkiek gaur duten aberastasunaren --hondarrekoa, existentziala?-- sorgunea!

Irakurketa horretatik ateratzen den beste ondorio bat hau da: zenbateraino dugun beharrezkoa subiranotasun politikoa, askatasuna (ekonomikoa, administratiboa, hezkuntzari dagokiona...), independentzia alegia, berreskuratzea, eta baita lurralde osotasuna ere, mugarik gabe, gure burua herri gisa eratzeko, libre bizitzeko eta, kultura berezia duen gizartea garen aldetik, kolektiboki garatzeko. Historiaren zauriak, euskalkien erradiografia honetan ikus daitezkeenez, sakonak dira eta mendetan irauten dute, nahiz eta beren sorburua disimulatu eta oroimenetik ezabatu.

Historiaren zauriak, Koldo Zuazoren euskalkien erradiografia honetan ikus daitezkeenez, sakonak dira eta mendetan irauten dute

El origen de los dialectos vascos

No sé si calificar de interesante, o directamente de fascinante, el breve ensayo de Koldo Zuazo, "Sobre el origen de los dialectos del euskara" (Berria). Entiendo que para un profano en la materia como yo las reflexiones que sugiere su lectura carecerán del rigor y la profundidad que suscitará a expertos y especialistas. Sin embargo, por lo que revela de nuestra historia en una lectura entre líneas, pienso que el texto de Zuazo viene a corroborar y apuntalar otras líneas de investigación sobre nuestro pueblo (a través de la sociolingüística, la historia, la antropología..) que iluminan áreas y épocas interesadamente oscuras.

La fragmentación del reino de Navarra

Por resumir, frente a las tesis tradicionales que explican el origen de los dialectos del euskara en relación a las antiguas tribus vascas (várdulos, autrigones, vascones...) o las distintas diócesis episcopales, Zuazo sostiene que la deriva dialectal tiene un pasado mucho más reciente. Se sitúa en la Edad Media y es probable que surgiera de modo paralelo a la formación de las provincias vascas. Los cortes básicos de la estructura del euskara, en efecto, coinciden con las fronteras políticas interpuestas: "Uno que separa el euskara de las provincias de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa del de Iparralde y Navarra, y otro que separa el euskara de Iparralde del de Hegoalde. Tal vez la fragmentación del Reino de Navarra esté en la base de ambos hechos..."

La primera evidencia se refiere, pues, a la importancia de la organización política en la evolución de todo tipo de circunstancias y características societarias. Del mismo modo, las consecuencias de las guerras. La estructura política y las decisiones de quien detente el poder crean sociedad a su medida. Lo sabíamos de manera difusa, pero a menudo parece que olvidamos la evidencia.

La pérdida de la independencia vasca, forjada en el reino de Navarra, tuvo consecuencias

profundas en nuestra realidad colectiva. Ya desde el primer momento, desde las primeras pérdidas territoriales, desde la caída de las comarcas de la Rioja o las actuales Vascongadas.

A la inversa, como deducción obvia, deberíamos valorar qué importancia tuvo la existencia del Estado propio, vasco, en nuestra realidad como pueblo (en la conservación y potencia del euskara, en la cultura que funciona y se proyecta, en la comunidad vasca que perdura a través de los siglos..), y cuyo efecto ha llegado, con todos los matices que se quiera, hasta el presente, de modo que nos permite existir como una realidad colectiva diferenciada.

Iruñea y Gasteiz

Una segunda sorpresa del ensayo de Zuazo, establecida a partir del análisis de los focos de surgimiento de los dialectos, es que si uno de los núcleos fundamentales de innovación es obviamente Iruñea, la ciudad más importante de la población vasca en la historia, el segundo gran núcleo o foco es Gasteiz, otra ciudad vasca influyente, central y dinámica.

De hecho, si de Iruñea deriva la centralidad del euskara en sus dialectos territorialmente más extensos (gipuzkera, nafarrera, lapurtera...), el origen de un dialecto tan potente como el vizcaíno actual se sitúa en la capital alavesa: "El área de acción de Gasteiz parece extenderse, aparte de su provincia, a Bizkaia, valle del Deba, La Rioja y, con menor fuerza, a las comarcas del Urola y Goierri guipuzcoanos..."

Este esquema explica la implantación de los diferentes dialectos, sus influencias recíprocas, su dinamismo en algunas zonas y su estancamiento en otras, etc.

Como apunto al principio, esta versión lingüística resulta fascinante, real, dinámica. Frente a una interpretación que contempla los dialectos como realidades estancas, arcaicas, correspondientes a viejas (y oscuras) fuerzas internas, tribus o similares, aquí descubrimos una acción política y social cercana. Inteligible. Nítida. Generada por la población en su actividad cotidiana, en las condiciones que le crea el marco político (histórico) en que se sitúa.

Como dirían Berger y Luckman, es la creación social de la realidad, en este caso en un tema tan intrínseco y esencial a la naturaleza humana como el lenguaje, que a su vez nos crea, nos constituye y utilizamos como instrumento para transformar el mundo. Además, frente a la versión sabiniana del país, que nos remite a una lengua de caseríos y cavernas, resulta que los núcleos, los cuencos en que se ha moldeado el euskara han sido las ciudades, la política (de agresión en muchos momentos, de dominación, dicho sea de paso) y la actividad social y económica.

Ahí entrevemos la trascendencia de los procesos políticos. En la radiografía de los dialectos vascos destacan las vías de comunicación, los flujos de tránsito, de economía, los cortes de las fronteras, la ordenación de un territorio sometido a la ocupación y las guerras. También la reconstitución del tejido social (la supervivencia, la vida que se regenera), en sus nodos más activos, más influyentes. ¡Quién nos diría, a la vista de la triste situación del euskara en Iruñea (con la alcaldesa Barcina) o en Gasteiz (donde nunca se habló vascuence, al decir de tantos enemigos de esta tierra), que estas dos ciudades han sido el núcleo generador de la actual

riqueza -¿residual, existencial?- de los dialectos vascos!

De esta lectura se infiere, también, cuánto necesitamos la recuperación de la soberanía política, la libertad (económica, administrativa, de enseñanza...), la independencia, en suma, y la integridad territorial, sin fronteras, para reconstituirmos, para vivir libres y desarrollarnos colectivamente, como sociedad, como cultura diferenciada. Las heridas de la historia, como se ve en esa radiografía de dialectos, son profundas, y permanecen durante siglos, aunque se disimule su origen y nos borren la memoria.